

JUSTIFIKAZIOA ETA ESKER ONAK

Testu honekin erabilgarri egin nahi ditugu “Gorputz Hezkuntza eta bere didaktika I” ikasgaiaren erabili ditugun apunteak; hori egiteko arrazoi nagusia ez da izan oso onak direla edo zerbait berria idazten dugula, baizik eta, euskaraz daudela. Ikasgai hau era askotan antolatu daiteke, baina gaiak lantzeko ikusmira bat hartu behar genuen, eta hala egin dugu. Testu honek gure ikuspegia adierazten du. Euskaraz ikasgai bat ematea ez da lan erraza; ez dago testurik, ez irakasleak erabiltzeko, ez eta ikasleak erabiltzeko. Itzulpenetan ordu asko pasatzen ditugu, eta noski, edukien aberastasuna galdu egiten da. Horregatik, gaztelaniaz testu hau baino askoz testu hobeak egongo dira, baina ez daude euskaraz.

Eskerrak eman nahi dizkiot Luix Mari Zulaikari, askotan berak ikasgai honetarako egin zituen apunteetan oinarritu bainaiz; pasarte batzuetan “horren nireak” egin ditut bere hitzak, dagoeneko ez baitakit zer den berea eta zer nirea. Halaber, Ana Macazagari ere eman behar dizkiot eskerrak. Izan ere, nirekin konpartitzen du testu honen atal bat, baina ez dugu hori bakarrik komunean. Mila esker, Ana, gure arteko elkarlana bultzatzeagatik, horrenbeste irakasteagatik eta lan honetan, bereziki, curriculumari buruzko ekarpenagatik. Eta eskerrak, orobat, departamenduko beste kideei: Angela Vaquerori, Juanjo Sistiagari, Beñat Amenbarrari, Iker Rosi, eta hainbat lankideri, bere solasaldiengatik. Beste Unibertsitateko lagunei, Carlos Astraini, Alfonso García Mongeri, Nicolas Borezi, Lucio Martinezi. Mila esker bene-benetan.

Mariate